

Parte hartu!


Partaidetzak **Kantauri Ekialdeko** Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa berrikusteko prozesuan ekarpen publikoak egiteko aukera ematen du, gardentasuna eta herritarren inplikazioa bermatuz erabakiak hartzeko prozesuan.

Gai Nagusien Eskema Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren webgunean: www.chcantabrico.es, Uraren Euskal Agentziaren webgunean: www.uragentzia.euskadi.eus, eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren webgunean: www.miteco.gov.es dago eskuragarri.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Gai Nagusien Eskema jendaurrean jarriko da kontsultagarri sei hilabetez, 2019ko irailaren 28tik 2020ko martxoaren 27ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Eremuan, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak 2019ko irailaren 27ko EHAAn argitaratutako Ebazpenarekin bat etorriz, eta 2020ko urtarrilaren 25etik uztailaren 24ra, demarkazioko erkidegoarteko arroen eremuan, Uraren Zuzendaritza Nagusiak urtarrilaren 24ko EAOean argitaratutako iragarkiaren arabera.

Epe horretan, interesa duten pertsona, entitate eta erakunde orok egoki irizitako proposamenak, oharrak eta iradokizunak aurkez ditzakete Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Plangintza Hidrologikoaren Bulegoan: **Plaza de España, 2; 33071 Oviedo**; edota mezu elektronikoko bat bidaliz: participación.planificación@chcantabrico.es helbidera, baita Uraren Euskal Agentziaren bulegoan: **c/ Orio, 1-3, 01010 Vitoria-Gasteiz**; edota mezu elektronikoko bat bidaliz: ParticipacionPlanHidrologico@uragentzia.eus helbidera.

Gainera, aldi horretan zure Administrazio Hidraulikoek GNEren edukiak eztabaidatzeko antolatuko dituzten tailerretan eta bileretan parte hartu ahal izango duzu.



Gai Nagusien Eskema

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatia



Zer da Gai Nagusien Eskema?

Gai Nagusien Eskema (GNE) tarteko dokumentu giltzarria da Plan Hidrologikoa berrikusteko prozesuan. Hasierako Dokumentuak finkatu ondoren lortutako emaitzetan oinarritzen da eta Plan Hidrologikoaren proiektuaren proposamena sostengatzen duen elementu gisa balio behar du.

Zeintzuk dira helburuak?

- Demarkazioko arazo esanguratsuenak identifikatzea, definitzea eta baloratzea.
- Arazoak konpontzeko aukera posibleak planteatzea eta baloratzea.
- Planaren ondorengo konfigurazioan hartu beharreko erabakiak zehaztea.

Zer eduki izan behar ditu?

- Ingurumen-helburuak lortzea eragozten duten presioen zerrenda, helburu horiek arriskuan jartzen dituzten sektoreak eta jarduerak barne.
- Egoera hobetzeko proposatutako jarduketak.
- Planteatutako neurrien eraginpean egongo diren sektoreen deskribapena.

GNEK Gai Nagusi bakoitzaren fitxa baten bitartez sistematizatzen ditu eduki horiek.

Nola har dezakezu parte aktiboki dokumentuaren lanketan?

- Gai Nagusien behin-behineko Eskema sei hilabetez egongo da jendaurrean kontsultagai, nahi duenak egokituz jotzen dituen Proposamenak, Oharrak eta Iradokizunak (POI) aurkez ditzan.
- Jasotako POIak aztertu egingo dira, eta egokituz jotzen direnak behin betiko dokumentuari gehituko zaizkio.
- Epe horretan Administrazio Hidraulikoek tailerrak eta bilerak antolatuko dituzte GNEren edukia eztabaidatzeko, interesa duten sektoreen eta, oro har, publikoaren parte-hartze aktiboa sustatzeko helburuarekin.
- Parte-hartze prozesuaren ondoren osatutako dokumentua demarkazioko partaidetza-organoen esku jartzen da.



Zer gaiak kezkatzen gaituzte?

Saneamenduaren eta araztearen arloan beharrezkoak diren esku-hartzeak burutzeak, **ur-masen ingurumen-helburuak betetzeko** eta isurketei buruzko arauen garapena osatzeko.

Zabortegetatik edo hondakinen biltegetatik eta industria- eta meatze-jarduerak kutsatutako lurzoruetatik datozen **lixibiatuen kutsadura zuzentzeak**.

Gure azaleko **ur-masen alterazio hidromorfologikoa zuzentzeak**, horietan luzetarako eta zeharkako jarraitasuna bermatuz eta uren zirkulazio normala zailtzen duten elementu artifizialen kopurua minimizatuz, ingurumen-helburuak lortu ahal izateko.

Gure ibaietan eta trantsizioko uretan emari ekologikoen **erregimen bat ziurtatzeak**, ur-masa horiei lotutako ekosistemen mantentzea bermatuz.

Ur-erabilera eta -eskarrien ezagutza hobetzeak, demarkazioko erauzketen kontrola eta jarraipena eginez.

Hornidura-sistemen kalteberatasuna murrizteak.

Klima-aldaketa arintzeko edo bere ondorioetara egokitzeko beharrezko neurriak hartzeak. Aldaketa horrek, besteak beste, muturreko fenomeno meteorologiko ohikoagoak eta kaltegarriagoak eragiten ditu.

Uholdeen aurrean prebentzio-, babes-, prestaketa- eta berreskuratze-neurriak indartzeak, uholdeek eragiten dituzten ondorio kaltegarriak murrizteko.

Urarekin lotutako **politika sektorialen koordinazioa eta integrazioa indartzeak**

Ur-baliabideen **esleipen eraginkorra bermatzeak**.

Ur-zerbitzuen kostuen berreskurapena bultzatzeak, ur-baliabideak modu eraginkorragoan erabili ahal izateko eta zerbitzuen iraunkortasuna bermatzeko epe luzera.